

KRISTAU ALAITASUNA

1

Jakitura, aurrerapena,
harrigarritzko teknika,
gehienak dira giza-zentzuna
lotaratzeko botika.
Beterik, baina hutsik,
barrez, baina ez pozik...
hau aldrebesko praktika!
Alaitasunez bizi izateko
ez da behar Amerika.

2

Munduak ezin leike asetu
gizonaren egarria,
edanago ta egarriago,
hau da gaurko gatx larria.
Jesusek dauka ura,
edanaz zenbat gura
sortzen da bizi barria;
ikasi daigun nun jaioten dan
alaitasun iturria.

3

Eguneroko bizitzan doguz
alaitasunezko tantak,
eguraldi ona ta osasuna
ume-jolas, gazte-kantak...
Tantaka da ezitia,
ametsa da bestia;
uxa guzurrezko plantak!
Neurriz biziko bagina, agur
gure arteko demandak.

4

Nazareteko Jesus gizona,
Haxe bai gizon alaia!
esker onez ta kantuz bihotza,
gizon guztien anaia.
Berbaz ta egitetan
bete eban benetan
zzeruko Aitaren nahia;
alaitasunez bizi nahi daunak
Berari jarraitzen saia.

5

Munduan zehar zabaldu daigun
zorionaren hazia,
alde onetik erakutsiaz
dana dalako gauzia.
Erein alaitasuna,
hori da osasuna,
pozteko gizon jausia;
holan jokatzen dabenentzat da
Jaungoikoaren grazia.

6

Lanpetik urten eta oporrak,
gaur, bihar, etzi ere bai,
bizia bizi, bizirik bizi,
bizia txastatu lasai.
Gizakia gizaki,
zu horixe izaki...
irripar egiteko gai.
Bizi-leihoak edegi eta
egin poz-irrintzi alai.

A. Martzel